

Bolivia eta Tanzaniako jantzak ikusteko aukerea egongo da Areatzan, Folklore Bizian jaialdian

Garagarriaren 21ean, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak konbidautu, Boliviako Manuel Acosta eta Tanzaniako Lumumba folklore taldeak egongo dira Areatzako frontoian, euren jantza tradizionalak erakusteko. Folklore Bizian jaialdia dala-ta, urtero, garagarriean, mundu zabaleko jantza taldeak hurreratzen dira Areatzara, publikoaren gozamenerako. **13. orrialdea**



Hile amaieran, saninazioetan, Lemoak herriko jaiak ospatuko ditu

Hile osoan zehar, jaiak egongo dira auzoetan. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuko ditue izenpe horreetako ermiten inguruetan batzean diran auzoetan.

Lemoako jaietako gauetan, Feos pero majos, Eire eta Zutik erromeria taldea egongo dira barikuan; Ithaka, Gozategi eta DJ Opilak, zapatuan; Arratians, Dupla eta Mugi Panderoa erromeria taldea martitzenean eta Puro Relajo eguaztenean. Egunez, ez dira faltauko umeentzako jolasak, txapelketa gastronomikoak, edota kuadrillen afaria beste jarduera askoren artean.

Baina ez da hile amaierara arte zain egon beharko jaietan ibilteko, hile osoan dagozalako jaiak inguruko auzuneetan. Eta euretako batzuetan, ermita inguruan barauskarria eta triktilariakaz ospatuten badabe be, beste auzune batzuetan bi edo hiru egunetako jai egitaraua prestatuten dabe, kontzertu, lehiaketa eta ikuskizunakaz. Holan, Igorreko San Kristobalen, 3 eguneko jai egitaraua prestatu dabe eta Zeaburiko Ipiñaburun be, beste hiru eguneko egitaraua. **5. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE

Zakarrontzira botaten dan janaria gitxitzeko lanean dihardu AUMk

Arratiako elikagai soberakinen neurketa, murrizketa eta errebalorizazioa izenpean, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) proiektu bat abiatu dau botaten dan jatekoa gitxitzeko. Oreak Circular Economy enpresa arduratuten da proiektua aurrera aterateaz. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Maskotak be heldu dira Arratia moduko landa eremuetara

Baseri ingurua izanda, beti egon dira txakur eta katu asko Arratian, Ubiden eta Zeberion. Baina ez ziran maskotak. Gure eremuan ia 5.000 txakur dago erregistrata eta kopuru horretan mundu bi dagoz: baserrian funzino bat eukien txakurrak, eta konpainiarako diranak. **8. eta 9. orrialdeak**

LEMOA/ZEANURI

Euskera Planak egiteko prozesuak bigarren fasean dagoz

Eusko Jaurlaritzek Euskera Planak egiteko marko barria atera eban aurtengo urtailen eta herri askotan marko barriagaz planak egiten hasi dira. Urteagaz batera hasi ziran herri askotan eta urte amaierarako amaituta eukitea espero dabe, 2025ean indarrean sartzeko. Zeanurin diagnostikoa egiten dagoz eta Lemoan, txostena egitea baino ez da falta.

Plan honek egiteaz arduratzen dan AEK-ko Ahize Aholkularitzako Andoni Solorzanogaz egon da BEGITU herriotako euskerearen egoerearen eta euskera planen gainean berba egiten. **6. orrialdea**



Literatura txokoa

MUNDU ZITALAREN KONTRA

Belaunaldi desbardineta andra biren bizipenak deskribiduten dauz liburu honetan Lizar Begoña. Ez da idazlearen lehenengo liburua, baina bai bere lehenengo eleberria. Izan be, olerkaria be bada. Daborduko olerki liburu bi argitaratu dauz, *Aro beilegia* eta *Gepardo japoniarra*, hain zuzen be. Hainbat sari be irabazi dauz, Igartza saria eta III. Olerki Txapelketa Donostia Kultur Saria.

Lehenengo personan kontatutako istorio hau hiru atal nagusitan bananduten da. Bakotxean hilebete bateri erreferentzia egiten jako. Izenek bat egiten dabe neska gazteak lan baten emongo dauan denporeagaz. Izan be, gaztea Benidorn-era udako behar baten jarduten joango da. Kiosko baten

lan egingo dau, ahizta bik aitarengandik jaso eben negoziolan, eta ahizta horreetako bat ezinduta geratu eta gero. Bestalde, hainbat azpiatalek osotuten dabez kapituluak. Kapituluotan apurka-apurka personaien gaineko informazioa jasoko dau irakurleak. Neska gaztea sentimentu eta desira anabasa baten azpian maitasuna egon leiteken bildurrez dago, horrek bere pentsetako errea guztiz aldatzen deusalako. Beste andrea, oster, bere ahizta nagusiaren zainketaz aparte, kioskoaren eta horregaz batera betiko desagertu dan bere herriaren zati baten, eta zergaitik ez berak bizitako bizimoduaren desagerpenaz kezkatuta dago.

Izenburua aitazten da liburuaren atzen orrialdeetan. Batetik, titulu

baten berbak diralako, eta bestetik, andra helduak be aitazten dauz bere bakarriketan: "...kioskoari hasieratik bukaerara arte eutsi diodalako mundu zitalaren kontra".

Bizitza kontrako ezarririk joan jakien eta horren kontra errebelatzen diran andra biren istorioa da hau. Ezin laketuta dabilzan personaiak euren inguruagaz gozatzatx doguz. Bizialdiko une ebatzigarrian dagoz bata zein bestea, gainera.

Halanda be, liburua erraz irakurten da. Batetik, berbategia erraza dalako eta, azpiatalak laburrak diralako; bestetik, kontetako errea xumea eta atsegin dalako. Gustura irakurri dot liburua eta Lizar Begoñaren liburua topetea plazer txikia izan da. Idazle barrien belaunaldikoen beste adibide bat be bada. Etorkizun ona opa deusagu Sopolako Lizar Begoñari.

Ane Miren Rilo



Lizar Begoña

Mundu zitalaren kontra

Elkar argitaletxea, 2024

128 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Garagarrilaren 1etik 7ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Garagarrilaren 8tik 14ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Garagarrilaren 15etik 21era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Garagarrilaren 22tik 28ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea. arratia@bizkaia.org*

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea

94 673 92 79

IKE

94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren

94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria

94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak.

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLIX). Kale berbakunea sustatu guran

SAN JUAN

- Egun on Julian!
- Zer **diñok** ba Martin?
- Bart zelan ibili **gintzoazan** ba?
- Ederto baten ibili **gintzoazan**.
- Su handia egin zenduen ala?
- Bai, itzelezko sua! Sardinak be erre **giñoazan** eta txingar gainetik saltau be bai!
- Saltu handia egin beharko **hindun** orduan?
- Bai! Arinika joan **nintzoan** surantza baina erdi laprast egin **ñoan** eta apur bategaitik txingar gainera jausi **nintzoan**.
- Itzela libradea orduan!
- Datorren urterako birritan pentsauko **joat**. Kar, kar, kar.

ERETXIA

Egin daigun magia

Euskal jantzari tradizionala izan nintzan, eta antolatzaile herrikoia be bai. Beste sasoi batzuk ziran, desbardinak. Sortzaile pasiboa nintzan. Egoera horretaz nekatuta proiektu barrietan hasi nintzan. Maskarrada animazino taldea, Kilika Bertso Eskolea, Katxarrada Batukadea, Txalaparta Eskolea eta azkenik Antxo ta Pantxa pailazo taldea. Egun, pailazoaren garapenean eta magiaren erabilpenagaz, mago amaitu dot. Pailazoa eta magoa naz, hortaz. Atzera begiratuta zenbat diziplina desbardin, zenbat ikasketa, zenbat esperientzia. Bizipen bakotxetik zeozer ikasi dot, eta ikasitako apur horregaz nire egungo persona eta sortzaile izaerea osotu dot. Sortzaile pasibotik, sortzaile aktiborako garapena egin dot.

Beraz, egin daigun sorkuntza eta magia aktiboa.

Sortzaile aktiboa nazanetik, magiaren aurretik, sorkuntzako bidean ikasitako guztia erabilgarri egiten jata, nire sortzeako tresnak bihurtu dira. Magiagaz, egia esateko, ametsa egia bihurtu dot. Nire muga asko gainditu dodaz, nire bildur askori aurre eginez. Oholtzan bakarrik egotea, esaterako muga handi bat zan niretzako, hau gainditu egin dot, oindino gehiago, disfrutau egiten dot. Ikuslearen harridura arpegiek, mago sentidu arazo egiten nabe. Nire lehengo pausuetan pentsaezina egiten jatan egoera hau. Pausua kostata emon dodan arren, izugarri nabil disfrutetan bide honetan.

Beraz, ametsak beteteko, egin daigun magia.

Sortzaile aktibo bakartia izatea ez da erraza, baina oindino gatxagoa da sortzaile konprometidua izatea. Nire bizitzan eraldaketa soziala oinarrietako bat da. Sorkuntza, horretarako bide izaten da. Niretzako eraldaketa eta sorkuntza bat dira. Banaezinak. Bidezko Euskal Herri euskaldun baten alde egiten dot lan, eta



IKER URTIAGA

Wallas Magoa

amets hori, magiaren bitartez lortzean saiatzen naz egunez egun. Magiaren bitartez sare sozialak sortu gura dodaz, benetako sare sozialak sortuz, errealak, jenteartea saretuz. Hori izango dalako benetako iraultzea, pantailatako ameslari bakartien sasoi honetan. Arratiako magoen topalekua sortu dogu, bertan jadanik 4 persona gagoz alkarlanean, eta bailarako herri guztietatik pasetea jarri dogu helburu nagusitzat, magian hasi gura daben personak topetako. Sarean sakontzeko. Ha-ta guzti be, artikulu hau irakurten bazagoz eta interesa badaukazu ipini zaitetz gugaz kontaktuan duda barik.

Zein polita litzateken hauts magiko batzuk bota, nire berba magikoak esan eta bidezkoa dan beste mundu baten agertzea. Baina hori ez da horren erraza eta gure esku daukaguna, bakar-bakarrik gure esku, banakako lana da, eta horrek eraldatuko dau sistema osoa.

Beraz, sareak sortzeako, magia egin daigun.

Sortzaile aktibo-bakarti-konprometidua izatea gatxa da, baina antolatzaile herrikoia izateak be zailtasun handiak ditu. Oztipoen gainetik saltoka zagozien antolatzaileok aitamen bat merezidu dozue. Antolatzaile herrikoi izatea eta denporea jente-artearen garapenerako borondatezko emoteko garaietan ez gagozalako, eta askotan be, bakardade handia sentiduten da. Zuei borondatezko lan horreetan zagozien horreei 0 km-ko sorkuntzearen garrantzia gogoratu gura deusuet, euskalduna, konprometidua, eraldatzaila... Gure herrietan konfiantzea lortzeako zailtasunak izaten doguz. Azken hau sortzaile askoren ahotan dago, eta sensazio txarrak izaten dira gure artean honeri buruz berba egiten dogunean. Alkarren arteko zaintza ezinbestekoa da, alkarren arteko errespetua izan behar da bidea. Dana ez dalako dirua eta askotan beste detaile askoren menpe egoten dalako ondoizatea.

Hau danau kontuan izanda, zuen txandea da magia egiteko.

Bizi magia eta dinbi danba karanba!



LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

Oroitzapenak

Leku askotan bizi izan naz Bizkaian eta Bizkaitik kanpo be bai. Arratian, ia bizitzaren erdia nire sustraiak ahaztu barik eta datu bitxi batez konturatu naz. Haurtzaroa igaro neban herria N-634ak zeharkatzen dau eta atzen 17 urtez bizi nazan herria N-240ak.

Txikia nintzanean, historikoki kanpoko enpresek ustiatutako meatzeak, jaio nintzan herriaren alde zaharra iruntsi egin eban. Gerotxoago Petronorrek, hondartzara oinez joateko erabilten genduan bidearen ondoan egoan padura ederra jan egin eban eta hortik aurrera etenbako lur eremu okupazioa handitzea eta aire eta soinu kontaminazioa be sufriduten dogu.

2017an Abantoko landa eremu zabal baten, Aldundiak parke teknologiko bat proiektatu eban; eskualdeak daukan industrializazio beharizanari aurre egiteko ei zan. Gaur egun hidrolinera bat eregiteko lanak baimendu ditu Udalak, Petro-

norren hidrogeno berdearen proiektuari zerbitzua emoteko, baina proiektu horrek kalteak besterik ez deutzaz ekarriko herriari.

N-634ak soportetan dauan trafikoa arintzeko atxakiagaz, etxeen ondotik pasauko dan, auzo batzuk isolatuta itxita eta kasualidadez parke teknologikoagaz konektetan dauan saihesbide proiektua aurkeztu dau Aldundiak. Kasualidadez Petronorrek sortuko dauan hidrogeno konprimiduta garraiatzeko, errepide barria behar dau materia arriskutsua dalako.

Hidrogeno berde hori lortzeako behar dan energia Arabatik ekarteko asmoa dago, herrien gaintetik pasauko dan goi-tensinoko linea barri bat sortuta. Hemen Iberdrola sartzean da jokoan Arratian moduan, Güeñes-Itsaso goi-tensinoko linea bertatik pasauko da eta.

Eduardo Galianok idatzitako *Latinoamerikako zain irekiak* etorten jata burura, gaur egun Euskadikoak idatziko leukela seguru nago eta honetan gure herriak jasaten dabizan sarraskiaren ardura ez leuskio leporatuko inperialismoari, nagusitasun politiko-ekonomikoari eutsi deutzien erakundeek daukien eredu neoliberalari baino.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Bere buruaz beste egin guran

Aprilaren 25eko krabelinek ez eutsien arean be esaten, ezta San Jorge eguneko liburu azokeak be. Beharbada, horregaitik, Joxek bere urrats nekatuak uriko hotelik merkeenera zuzendu ebazan. Bertan gela txiki bat eskatu eban, laugarren solairuan; azken baten, ez eban besterik behar, leku bat jentearengandik urrun.

Joxek gutun bat idazteari ekin eutsan, bertan txarto tratau ei eban munduari agur inotsan. Ez zan oso gutun luzea izan, lauzpabost lerro eta sinadura urduri bat. Besterik ez.

Gutuna idazten amaituta gelako idazmahai txikiaren gainean itxi eban, gutunazalean sartu barik, tolestu barik. Jenteak irakurtea gura eban. Horren ostean botilatxu batetik pozoia edan eta ohean etzan zan amaieraren zain egoan bitartean. Holan emon eban hiru ordu. Orduok igarota hilda ez egoala konturatu zan. Orduan, botilatxutik atzera be edan eban, aurrekoan baino gehiago edan be. Ez zan ezer gertatu. Joxe ez zan hiltzen. Ha zein txantxa mota zan? Joxek errebolber bat atera eban zorrotik, kontu handiz ipini eban lokiaren parean -ez eban huts egin gura- eta tiroa egin eban.

Tiroak oihartzun handia egin eban hotelean, baina Joxe ez zan hiltzen. Beste lau bala zuzendu ebazan bere buruaren kontra, eta ezer ez, Joxe ez zan holan be hiltzen. Tiroek hoteleko bezero eta behargin guztiak asaldatu ebazan.

Nork ipini eutsan ura pozoia botilatxuan? Eta nork fogueozko balak errebolberrean? Horregaitik, hotela itxita etxera jo eban. Bertan emaztea pozoinduta eta bere bost seme-alabak tiroz akabatuta aurkitu ebazan. Suteko labana hartu eban, biluztu zan eta sabelaldean labankadak emoten hasi zan. Labanaren ahoa haragi bigunean erraz sartzean zan, baina berau ateratzean ez zan odol arrastorik ikusten, ura bezain garbi urteten eban. Zauririk be ez zan ikusten. Joxek gasolina hartu eta buru gaintetik bota eban, baina poxpoluak behin eta barrero amatatzen ziran.

Orduan, balkoirantza egin eban galapan, eta bertatik bere burua bota baino lehen, kalean lanbankadaz hilda egozan gizon eta emakume tropelak ikusi ahal izan ebazan, uri osoa sugarretan egoan artean.

Halanda be, Joxe ez zan hil.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Urtero lez, BEGITUREN Argazki Lehiaketan parte hartu eta udan ateratako argazkiak irakurle guztiakaz konpartiduten konbidatzen zaituegu. Irabazleentzat sariak egongo dira.

Argazki Lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Gaia: argazkiak 2024ko oporretan egindakoak izango dira.
- 2.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 3.- Nora bialdu: Argazkiak begitu@begitu.eus helbidera bialdu behar dira.
- 4.- Aurkezteko epea: 2024ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko aldizkariaren zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horrek diranik irabazleak.
- 5.- Epaimahaia: BEGITUKO erredakzino taldeak osotuko dau.
- 6.- Epaiak: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean emongo da jakitera.
- 7.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaiak egoki jo ezkerro.
- 8.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenek honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikalegata Zerbitzuak 900
R.P.S. 31/06

ARRATIA, UBIDE

Jateko gitxiago botateko proiektu bat ipini dau martxan AUMk

Arratiako elikagai soberakinen neurketa, murrizketa eta errebalorizazioa izenpean, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), batez be janleku handiak dituen zentroetan, alferrik galtzean dan jatekoaren kantidatea murrizteko proiektua ipini dau martxan.

Erredakzioa

Horretan aditua dan Oreka Circular Economy enpresea ardurtuko da proiektua aurrera aterateaz. Europako Next Generation funtsen dirulaguntzeagaz dago finanziauta.

"Organikoaren kudeaketa zirku-larra egin gura dogu. Prebenzintotik hasi eta gero soberakinak sortzean badira, ahal bada aprobetxau -horretarako dago proiektu hau- eta ezin dana aprobetxau, ondo kudeatu eukiontzi marroian botaz" azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen AUMko Iraunkortasuneko Teknikariak.

Munduan, erositako jatekoaren herena alferrik galtzean dala dino Ainize Medrano Oreka enpresako marketing arduradunak. "Oso garrantzitsua da prebenzino eta sensibilizazioaren inguruan lan egitea. Baita datuak eukitea be. Ez dakigu lekuan lekuko zenbaki zehatza, eta egingo dogun lehenengo lana horixe neurtzea izango da. Ez etxeetan, janlekua daukien zentroetan baino; izan be, etxeetan asko botaten da, baina enpresetan, eskoletan, hoteletan, jatetxeetan eta abar askoz gehiago. Hortik hasiko gara neurketak egiten eta hor be egingo dogu prebenzino lana. Eta dohaintzen bidez janari xahuketea murriztu egingo dogu gero". Horretarako jatekoa emoteko alkarte edo erakundeak be identifikau behar

dabez.

Izan be, proiektuaren helburuak, soberakinak identifiketea eta neurtzea; jatekoa alferrik galtzea prebenidu eta murriztea; dohaintzaren bidez jatekoa aprobetxetea eta herritar guztiei jatekoa ez botateak gizartean, ingurumenean eta ekonomian daukan garrantziaren gainean sensibilizetea dira.

63.000 tonatik gora janari botaten da urtero Hego Euskal Herrian

Urtero, milioika tona janari botaten da mundu osoan. Zati bat ekoizpenean eta merkaturatzeko prozesuan galtzean da, baina gehiena, % 70, jatetxeetan eta etxeetan. Hegoaldeko etxeek 63.000 tonatik gora elikagai galtzean ditue urtean. Zehatz, 63.465.596 kilogramo, EITBk jakitera emondako datuen arabera. Batez beste, 70 kg etxe bakoetako. Batez bestekoa hori izanda be, desbardintasun handiak dagoz eta etxeen laurdenetan ez da jatekorik alferrik galtzean. Janlekua daukien zentro kolektiboetan, nahiz eta zentro guztietan alferrik ez galdu jatekoa, besteetan, botaten dan jateko kantidatea askoz handiagoa izaten da.

EITBren datuen arabera, frutak dira, alde handiz, gehien botaten doguzan jatekoak, 19.000 tona baino gehiago Hego Euskal Herrian; ondoren, barazkiak, 7.000 tona eta gero ogia, 3.300 tona.



Ainize Medrano eta Aitor Uriguen.

LEMOA

Ithaka eta Gozategi taldeen kontzertuak egongo dira Lemoako jaietako zapatu gauean

Aurten 25 urte bete dituan Harriketarrak Gazte Asanbladak emongo deutse hasikerea jaiei, hilaren 26an, barikuan arrastiko 19:00etan udaletxean.

Hortik kalejiran joango dira Elizondora Mozorro Lehiaketan parte hartu gura dabenak, erraldoiak eta gaiteroak. Hortik aurrera, ondo pasetako jarduera ugarik osotuten dabe jaietako programea: kontzertuak, erromeriak, gastronomia lehiaketak, playbacka, eta artisautza azokea, besteak beste.



Erredakzioa

Kontzertuei jagokienean, Feos pero majos, Eire eta Zutik erromeria taldea egongo dira barikuan; Ithaka, Gozategi eta DJ Opilak, zapatuan; Arratians, Dupla eta Mugi Panderoa erromeria taldea martitzenean eta Puro Relajo eguaztenean.

Garagarriak 26, barikua Mozorro eguna. Gaia: horia

18:30ean, jaietako kartelen erakusketea.
19:00etan, jaien hasikerako txupina Harriketarrak Gazte Asanbladak botata; ostean, kalejirea: Mozorro Lehiaketan parte hartuko dabenak, erraldoiak eta gaiteroak. Elizondon sari banaketea.
21:00etan, kuadrillen afaria Kulturguneko plazan. (Euria bada, kiroldegian).
23:00etan, kontzertuak eta errome-

ria txosnagunean: Feos pero majos, Eire eta Zutik erromeria taldea.

Garagarriak 27, zapatua Kuadrilla eguna

11:00etan, umeentzako jolas parkea eskolako patioan.
13:30ean, bits jaia eskolako patioan.
13:00etatik 14:00etara, Paella, Gisadu eta Tortilla Lehiaketetako aurkezpena. Ostean, herri bazkaria eskolako patioan.
16:00etan, jubiladu alkarteak antolatuta, Mus eta Briska Txapelketak jubiladuen tabernan.
17:30ean, Igel Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat. Eskolako patioan.
18:00etan, Igel Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat. Eskolako patioan.
19:00etan, Bola Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat. San Inazio plazan.
19:30ean, Bola Txapelketea 18

urtetik gorakoentzat. San Inazio plazan.

22:30ean, kontzertuak txosnagunean: Ithaka, Gozategi, DJ Opilak. Goizaldean pikoteoa txosnagunean. 02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa Correos-etik.

Garagarriak 28, domekea

18:00etan, *Desorekatua* magia ikuskizuna txosnagunean.
19:00etan, Euskolabela daukan oilasko pintxo dastaketea txosnagunean. Pintxoak 1,5 euro. Batutako dirua AVIFES Gaixotasun mentala daukien eta euren senitartekoen Bizkaiko alkartearentzat.

Garagarriak 29, astelehena Herri afaria. Umeen eguna barraketan

12:00etan, hareazko irudien tailerra Kulturguneko plazan (euria bada Kotxepin Kultur Etxean).
18:00etan, *Euskal pelota ezagutzen* Lemoako Esku Pilota taldearen eskutik kiroldegian.
21:30ean, herri afaria txosnagunean.

Garagarriak 30, martitzena

12:00etan, Zuresku egurrezko jolasak familian. Kulturguneko plazan (euria bada Kotxepin Kultur Etxean).
18:00etan, rally umoristikoa Elkartruketea gazteek antolatuta Arlonagusia plazatik.
22:00etan, Playback Lehiaketea txosnagunean.
23:30ean, kontzertuak txosnagunean: Arratians, Dupla eta Mugi Panderoa erromeria taldea.

Garagarriak 31, eguaztena San Inazio eguna

11:30ean, XXVI. Artisautza Azokea Atxeta plazan.
12:00etan, mezea San Inazio basilizan; meza ostean, Durundi Barri Dantza Taldearen ekitaldia. Baseritar jantzita doazenei, taloa eskuratzeko txartela emongo jakie.
19:00etan, Puro Relajoren kontzertua txosnagunean.
Ondoren, Garsu erre.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Garagarrilean eta abuztuan zenbaki bana aterako dau BEGITUK paperean

Erredakzioa

Garagarril eta abuztuan, hile bakotxean, zenbaki bakarra aterako dau BEGITUK paperean. Ha-ta guzti be, BEGITUK, Arratia, Ubide eta Zeberioko informazioa jarraituko dau emoten online eta sare sozialetan.

Papereko aldizkariari jagokonean, 22 zenbaki ateraten dira urtean. Hau da, garagarrilean eta abuztuan hile bakotxean zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Aurten be holan izango da,

eta garagarrilaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 1ekoa izango da eta urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU aldizkaria paperean.



IGORRE

Igorreko Udalak 227.000 euro baino gehiago inbertiduko ditu Haur Hezkuntzako teilatua konponduteko

Erredakzioa

Ikasleen oporren hasikereagaz batera, Igorreko Inazio Zubizarreta Ikastetxearen Haur Hezkuntzako eraikinaren estalkia birgaitzeko lanak hasi ziran. Udalak 227.682,75 euro inbertiduko ditu lanotan, hiru hilabetetan egiteko.

Lanok Igorreko hezkuntza komunitatearen eskaerari erantzuten deusie. Udalaren txostenean adierazoten danaren arabera: "eraikinaren estalkia ikuskatu ondoren, teila oro har zahartzen doala ikusi da. Teiltupeko gune batzuetan euri ura sartzean da, mantentze lanetan edo estalkiko isurkien eta horreen eta parametro bertikalen arteko erremateetan akatsak dagozako". Hori dala-ta, teiltuaren estalki osoa altxatu behar da eta hori aprobetxauz, isolamentu termikoa sartuko da, bai estal-

kian, baita parametro bertikal batzuetan be.

Hobekuntza horreen helburua, filtrazio eta zahartze arazoak konpontzeaz gainera, "eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzea da, erabiltaile guztientzako ingurune segurua eta erosoagoa eskaintzeko".

Olatz Urkiza Atutxa alkateak teiltua zaharbarritzearen garrantzia azpimarratu gura izan eban. "Personen segurtasuna eta babesbermatu ahal izango dogu, eta instalazioak hobetuko doguz, irakasleek eta ikasleek euren jardueraren espazio egoki baten garrantu ahal izan dagien. Udal honen helburuetako bat da gure bizilagunei azpiegitura publiko onenak eskaintzea, horreek ahalik eta baldintza onenetan mantenduz. Horretarako, egunez egun lanean jarraitzen dogu" azaldu eban prensa-ohar baten bidez.



LEMOA/ZEANURI

Zeanuri eta Lemoako Euskera Planak egiteko prozesuak fase aurreratuetan dagoz

2022ko abenduaren 31n, Eusko Jaurlaritzak Euskera Planak egiteko eukan ESEP markoa amaitu zan. Marko barria, sigla bakoa, aurtengo urtailean atera zan eta horren gainean hasi dira egiten herrietan Euskera Plan barriak. Arratian, hainbat herrik Ahize AEK-ren Hizkuntza Aholkularitzari esleitu deusie planok aurrera ateratea. Ahizeko Andoni Solorzanok erantzun deusaz BEGITUREN galderei.

Erredakzioa

Urteagaz batera hainbat Euskera Plan egiteko prozesuak abiatu ziran. Igorrekoa zein fasetan dagoan begituko 429. zenbakian azaldu zenduan. Zein fasetan dago Zeanurikoa?

Eustat-etik eta beste iturri batzuetatik datu soziolinguistiko eta demografikoak batu, eta gero alkarriketak egin dira erreferentziako herritarrez, non eragin jakiteko. Galdetegi bat be zabaldu da herritarren artean.

Galdetegia, martiaren bueltan zabaldu zan eta gero egin zan mahai bat merkatariakaz. Zeanurin badago herrian bertan euskera ikasten dabilan talde bat eta eureka be egin zan mahai bat euren eretxiak eta ekarpenak jasoteko.

Gero lehenengo lan-mahaia egin zan, maiatzaren 29an, dinamika batzuk. Datu soziolinguistikoak eta demografikoak emon ostean, planteau jakiezan galdera eta ariketa batzuk, zer daukien alde eta ze oztopo daukiezan Zeanurin euskeraz egiteko azalduz. Eta gero aurrera egiteko proposamenak egin ebezan partaideek.

Jasotako informazio guztiaz diagnostiko bat egin dogu. Eta diagnostiko hori aurkeztuko deusagu jenteari lan-mahai zabal baten. Lehenagoko mahaiak arloka izan dira (merkatariak eta ikasleak) eta gero orokor bat egin dogu. Oingoa herritar guztientzako da, gura dauan parte hartu dagian. Hori urri lehenengoaren 14an, 10:00etatik 13:00etara izango da. Hor proposamenak jasoko doguz eta jasotakoagaz egingo dogu plana. Eta gero Udalar aurkeztu, adostu eta gero eureka pasauko dabe plenotik eta 2025ean martxan ipiniko da.

Eta Lemoakoa, zein fasetan dago?

Lemoako Euskera Planeko txostena egitea falta da. Dokumentua sortzea. Lemoan be prozesua bardina izan da. Urtailean hasi zan prozesua. Lehenengo egin ziran mahai-batzuk: Kultura, Aisia, Kirola, Hezkuntza eta Familia Transmisioan eta Gazteria ar-

lokoak, Kotxepinen. Gero alkarriketak egin ziran herritar batzuk eta galdetegiak zabaldu ziran. Horregaz diagnostikoa egin genduan eta diagnostiko hori laburtu eta aurkeztu genduan lan-mahai zabal baten martiaren 2an. Azken fasean gagoz eta espero dogu urri lehenengoan aurkeztu ahal izatea herrian.

Euskerearen aldetik ze egoeratan dagoz Zeanuri eta Lemoa?

Zeanurin ez da egin euskerearen kale erabilerearen neurketarik eta ez dago datu zehatzik, baina ingurukoak ikusita egin geinke idea bat.

Bizkaian, euskerearen kale erabilerea % 9 ingurukoa da. Bilbon Handian da % 4. Arratia-Nerbioin barriz, % 20 ingurukoa. Herriz herri, Lemoan 20-25 bueltan dago euskerearen kale erabilerea; Igorren, kalean egindako barrietaaldien % 40 euskeraz dira eta Diman % 60. Esan lei zenbat eta gehiago urrundu Bilbotik, euskera gehiago egiten dala. Trenik ez egoteak be lagunduten dau. Beraz, ez dakigu zehatz, baina emoten dau Zeanurik Dimagaz antza handiagoko eukiko daua Bedia edo Lemoagaz baino. Gero ezagutza datuei jagokienean, Eustaten arabera, gazteen % 100ek daki euskeraz eta herritar guztien % 90etik gora.

Bizkaia bueltauz, Ondarroa da gunerik euskaldunena, % 80 inguruko kale erabilereagaz. Sarritan pentsetan da gunerik euskaldunena Gipuzkoan dagoala, baina ez: Bizkaian dago eta Leartibai da Euskal Herriko zonarik euskaldunena. Gertatzen dana da Bizkaian daukagula espektro guztia; gunerik euskaldunena eta gunerik erdaldunena.

Eta kale erabilerearen ehuneko eskasa izan arren, euskaldun gehien daukan herria be Bizkaian dago. Bilbo da. Bilbon 40.000 euskaldun dagoz. Zein herrik daukaz 40.000 euskaldun?

Arratian euskerearen erabilereak behera egin dau. Euskera planak eraginkorrak dira euskerearen erabilerea bultzatzeko?

Bai. Egia da euskera gehien egin izan dan lekuetan bajatu egin dala. Beherakada handia da gainera eta adi egon behar gara horregaz. Zergaitik behar dau, demagun, Zeanurik, Euskera Plan bat, euskeraz egiten bada kalean? Beherakada egon dalako gune euskaldunenetan Euskal Herri osoan. Zergaitik, izan daitezke sare sozialak, globalizazioa... Oin dala 20 urte ETB indarra euki eban, baina gaur egun gazte gitxik ikusten dabe telebista. Sare sozialetan doaz. Sare sozialetan be badago euskera eta hori ez da izango beherakadearen errazoi bakarra.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Begoña Pedrosa da Eusko Jaurlaritzaren barriko Hezkuntza sailburua

Imanol Pradales Lehendakariak, bagilaren 22an karguaren zina egin ostean, jakitera emon ebazan gobernua osotuko daben sailburuen izenak.

Erredakzioa

Hamabost sailburu dagoz oingo gobernuan, zortzi gizon eta zazpi andrazko. Hezkuntza Saileko sailburua Begoña Pedrosa Lobato billaroztarra da.

Aurreko gobernuan, Urkulluren gobernuan Hezkuntza sailburuordea izan zan Pedrosa (Areatza, 1975) eta Bildarrategaz batera, abenduan onartutako Hezkuntzaren Lege bariaren egileetakoa da. Aurretik, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa izan zan 2014tik 2020ra, eta irakasle eta ikertzaile be jardun eban han. Hizkuntzalaritza Aplikatuaren doktorea da.

Gobernu barria

Gobernu barriko 10 kide jeltzaleak dira eta beste bostak, PSEkoak. Imanol Pradales Lehendakaria legez, EAJkoak dira: Ibone Bengoetxea, Kultura, Hezkuntza eta Politikako sailburua eta lehen lehendakariordea; Maria Ubarretxena, bozeroalea eta Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernuko sailburua; Begoña Pedrosa, Hezkuntzako; Bingen Zubiria, Segurtasuneko; Noel D'Anjou Olaizola, Ogasuna eta Finantzetako sailburua; Mikel Jauregi, Industria, Transizio Energetikoa eta

Jasangarritasuneko; Jose Ignacio Perez, Unibertsitateak, Zientzia eta Berrikuntzako; Nerea Melgosa, Ongizatea, Gazteria eta Erroka Demografikoko sailburua; Alberto Martinez, Osasuneko sailburua, eta Amaia Barredo, Elikadura, Nekazaritza Garapena eta Arrantzakoa.

PSEren esku bost sail geratu dira. Mikel Torres, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Enplegua eta Laneko sailburua da; Javier Hurtadok Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izaten jarraituko dau; Denis Itxasok Etxebizitza eta Hirigintza Agendea hartu dau; Susana Garciak Mugikortasun Jasangarria eta Maria Jesus San Jose Justizia eta Giza Eskubideak saileko sailburua da.



IGORRE

Igorreko Gazta Azokan 144 euro batu ziran Caritasentzat

Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapen Elkarreak, bagileko gaztai azokan egindako dastaketetan jasotako dirua, 144 euro, Caritas Arratiari emon deutso.

Lehenengo aldia zan Igorren gaztai azokea egiten zala eta salmenta ugari eta ekimena arrakastatsua izan zala dinoe Gorbeialdetik. "Dastaketek parte-hartze handia izan eban, 48 personak parte hartu eban programautako saio bietan". Eurretan jasotako dirua, Olatz Urkizak Gorbeialde LGEko presidentek, Maribel Salcedo

Caritas Arratiako arduradunari emon eutsan bagilaren 21ean.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Garagarrilean, auzoz auzo eta jairik jai

Garagarrila, auzuneetako jaietako sasoirik beteena da Arratian. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuko ditue izenpe horreetako ermiten inguruetan batzean diran auzoetan, eta auzotako bizilagunek jana eta jantzak konpartiduko dabez, besteak beste.

Erredakzioa

Hileko lehenengoak, Areatzako Ospitalostekoak dira. Hilaren 3an ospatuko dabez santomasak han, 12:00etan mezea eta 20:00etan parilladeagaz.

Hurrengoak sankristobalak dira, San Kristobal eguna garagarriaren 10a da-ta. Igorreko San Kristobal auzoko jaiak formatu desbardina hartu dabe aurten, eta San Kristobal egunean, betiko moduan, ermitan mezea eta barauskarria egon arren, jaiak, aurreko barikuzapatuan izan beharrean, aurten aurreko eta osteko zapatuetan izango dira.

Ostean, Lemoako Tallerreta eta Lemoretako jaiak datoz. Aurten, hilaren 13an ospatuko ditue musikea eta auzo bazkariagaz.

Santa Marina edo Santamañe eguna 18an da eta Dimako Bargondian eta Arteako Santamañen ospatuko dabe. Artean, jaiaren hurrengo domekan, hilak 21, ospatuko dabe jai mezea, barauskarria eta Paella Lehiaketeagaz.

Maria Madalenaren eguna, hilaren 22an da eta Dimako Lamindaon eta Ubiden, ospatuten da jaiak.

Ubiden, 12:00etan, umeen jokoak egongo dira eta ostean mezea eta kopaua. Tortilla Txapelketea egongo da gero, 14:30ean aurkeztu behar dira tortillak, eta bakotzak etxetik eroandakoagaz bazkaltzeko aukerea egongo da Bolalekun, 15:00etan. Ostean bingoa egongo da. Arrastian txapelketa bi aukeran: Pikante eta Bigote Txapelketak. La Jodedera Kubako eta Euskal Herriko musikariek osotzen daben taldea entzun ahal izango da iluntzean. Sardinak eta txokolatetako erromeriak emongo deusie amaieraregunari.

Zeanuriko Ipiñaburur, Santiago eta Santa Ana egunak ospatuten ditue hilaren 25 eta 26an hurrengo hurrengo.

Artean eta Diman be ospatuko dabez santiagoak. Artean, mezea egongo da egun horretan Santiago ermitan, eta ostean barauskarria. Inguruetan Marmitako Txapelketea egingo dabe.

Hileari amaierare emoteko, saninazioak dagoz. Egun horren inguruan, Bizkaia osoan dago Gorbealara igoteko ohiturea eta

mendian be ez da jai giroa faltau. Areatzatik autobusak urtengo dira Pagomakurreraino egun horretan.

San Kristobal (Igorre)

Garagarrilak 6, zapatua

10:00etan, *Aramotz ezagutu* (oinenez ibilaldia).

11:30ean, txupinazioa.

12:00etan, Paella Lehiaketarako izen-emotea.

13:00etan, Igel Txapelketea.

14:00etan paellen aurkezpena.

17:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea.

18:00etan, Nimu Cia konpainiaren *Jacuzzi* kale antzerkia.

20:00etan, kontzertuak: Astrapalea Rock gaua, Foterie taldea eta mikro irekia.

Garagarrilak 10, eguaztena

13:00etan, mezea. Ostean barauskarria eta herriko trikitaliak.

Garagarrilak 13, zapatua

16:00etan, Goitiberen Txapelketea.

22:30ean, kontzertuak: A & H (Akesolo eta Houston) eta Akerbeltz erromeria.

Lamindao (Dima)

Garagarrilak 20, zapatua

11:00etan, igoera Lamindaoko eleizatik Ilunbera. Bertan ikurriña aldatu.

12:00etan, Futbolin Txapelketea

eta kalejireia.

15:00etan, herri bazkaria.

18:00etan, herri-kirolak.

20:00etan, txokolata.

22:30ean, DJ Xaibor.

Ipiñaburu (Zeanuri)

Garagarrilak 20, zapatua

12:00etan, jaien hasikerako txupina.

14:00etan, auzo bazkaria. Izen-emotea, garagarriaren 16ra arte 605 591 101 telefonoan.

Bazkalostean, animazioa, bingoa...

19:00etan, Bola Txapelketea, Zeanuriko Kofradia Txapelketarako puntuagarria.

20:00etan, txokolata.

Garagarrilak 25, eguena Santiago eguna

12:00etan mezea. Ostean barauskarria herriko txistulariek girotuta.

17:00etan, umeentzako jolasak.

17:00etan, Mus eta Briska txapelketak. Izen-emotea eguerdian zarratuko da 605 591 101 telefonoan.

18:00etan, artile tailer erakustaldia Monseren eskutik.

19:00etan, ardi-txakurren erakustaldia.

20:30ean, txarri giharrea eta trikitaliak.

Garagarrilak 26, barikua Santa Ana eguna

12:00etan, Arimen mezea eta ostean barauskarria.



MASKOTAK. SARETZEN

Arratiako etxeetan ia 4.500 txakur dagoz

Arratia, Ubide eta Zeberion, etxe erdietan baino gehiagotan, gitxienez txakur bat dago. Baserrietan, txakurrak lanerako izaten dira: artaldea edo behiak jagoteko, baita etxea be. Baina atzen urteotan, txakurren funtzinoa aldatu egin da asko eta gero eta gehiago dira konpainia txakurrak; hau da maskotak. Gauza bera gertatu da katuakaz; baserrikoak ez diranak, etxeetan bizi dira etxekoei konpainia egiteko.

Erredakzioa

Espainiako estaduan, txakurren bat daukien etxeen ehunekoa % 24-25 da. Euskadin eta Nafarroan barriz, kopurua da 5etik 1. Arabak dauka batz besteko handiena (% 25,1), gero Gipuzkoa (% 22,2) eta Bizkaian ehunekoa % 21,9 da. Zerikusirik ez, Arratia, Ubide eta Zeberio, BEGITUREN eremuan erregistrautako txakurren bat etxeetako % 52,5ean dago. Txakurra daukien familien ehunekoa txikerrena Igorrek dauka % 32,4 eta handiena Dimak % 73,7.

Gaztela-Mantxa eta Kanariak dira estaduan biztanleko txakur kopurua handiena daukienak, 10 biztanleko 3 txakur inguru. Euskadik (1,50) eta Nafarroak (1,57) ratio txikienetakoak ditue.

Ez da gure eskualdearen kasua.

Txakurren erabilereari jagokionean barriz, RIAC Euskadi eta Saretzen-en datuen arabera, txakur gehienak konpainiarako dira. Datuak erregistrautako txakurrenak dira, hau da txipa daukienenak, baina datuon arabera, Ubidek dauka konpainiarako txakurren ehunekoa

txikiena % 57 eta zaintzarako handiena % 29; Arantzazuk barriz, konpainiarako ehunekorik handiena % 83, ehizarako be handiena % 18 eta zaintzarako txikiena % 6.

Txakur gehiago umeak baino BEGITUREN eremuko herri guztietan, ume baino txakur gehiago dagoz. Txakurrek umeen kopurua ia bikoitzen dabe.

Maskotak atendiduteko, al baitari establezimentu hiru dagoz gure eremuan: bata Lemoan, beste bat Igorren eta beste bat Bedian. Lemoan, erregistratuta dagoz 774 txakur, 61 katu eta 4 osterantzeko maskota; Igorren, 860 txakur, 93 katu eta 4 bestelako maskota. Establezimentuok ez ditue bakarrik herriko maskotak artatzen, inguruko herrietakoek be Bedia, Igorre edo Lemoara eroaten dabez maskotak.

Gure gizartea gero eta abegitsuagoa da maskotakaz eta hori maskotak onartuten dituen hoteletan be igartzen da. Holan, Euskadin, 346 hotel dagoz gaur egun Turismo Sailean erregistrauta eta horreen % 28,61 *pet friendly* dira.

| | biztanleria | 15 urtetik beherako biztanleria | Txakur kopurua |
|----------------|---------------|---------------------------------|----------------|
| Arantzazu | 412 | 63 | 107 |
| Areatza | 1.232 | 191 | 263 |
| Artea | 763 | 107 | 286 |
| Bedia | 1.112 | 125 | 430 |
| Dima | 1.497 | 222 | 687 |
| Igorre | 4.209 | 674 | 860 |
| Lemoa | 3.585 | 585 | 774 |
| Ubide | 182 | 22 | 58 |
| Zeanuri | 1.241 | 167 | 552 |
| Zeberio | 1.076 | 146 | 480 |
| GUZTIRA | 15.309 | 2.302 | 4.497 |

| | biztanleria | Txakur kopurua | Txakur kopurua 10 biztanleko |
|----------------|---------------|----------------|------------------------------|
| Arantzazu | 412 | 107 | 2,6 |
| Areatza | 1.232 | 263 | 2,3 |
| Artea | 763 | 286 | 3,75 |
| Bedia | 1.112 | 430 | 3,87 |
| Dima | 1.497 | 687 | 4,59 |
| Igorre | 4.209 | 860 | 2,04 |
| Lemoa | 3.585 | 774 | 2,16 |
| Ubide | 182 | 58 | 3,19 |
| Zeanuri | 1.241 | 552 | 4,45 |
| Zeberio | 1.076 | 480 | 4,46 |
| GUZTIRA | 15.309 | 4.497 | |

Iturria: RIAC-Euskadi eta Saretzen.



| | Txakurra daukien familien % |
|-----------|-----------------------------|
| Arantzazu | 43,1 |
| Areatza | 39,2 |
| Artea | 62,7 |
| Bedia | 60,4 |
| Dima | 73,7 |
| Igorre | 32,4 |
| Lemoa | 33,7 |
| Ubide | 43,9 |
| Zeanuri | 66,9 |
| Zeberio | 69,2 |

Luis Angel Erkiaga: "Arratian txakur handiak gura dauz jenteak"

Luis Angel Erkiagak 1996ko garagarriaren 1ean zabaldu eban Igorreko Albaitari klinika. Harrezkero, txakur, katu eta gainontzeko animalia ugari artatu ditu bere klinikan.

Erredakzioa

Arratia, Ubide eta Zeberion, hiru albaitari klinika dagoz eta euren atendituen dabez inguruko txakur, katu eta gainontzeko maskotak. Gizartea aldatu egin dala eta txakurrak eta katuak tratetako eran ikusten dala hau uste dau Erkiagak. Baserriko mundua eta maskotena mundu bi dira. Eta bigarrenaren doa gizartea, bestea atzean itxita.

Arratia, Ubide eta Zeberion, berraren eremuan ia 4.500 txakur dagoz eta etxe erdietan baino gehiagotan dago txakurren bat. Horreez gainera, katuak eta beste maskota batzuk be badauz. Argi dago asko dirala. Zergaitik hainbeste maskota edo animalia etxean?

Asko dira baina Arratian esate baterako, beti egon dira asko. Baserritan, gehienbat, beti egoten ziran bi edo hiru txakur: arratoi-txakurrak, etxea jagotekoak... baita katuak be. Baseri bakoitzean, 3 edo 4 katu. Oin, mikrotxipa daukienez, kontrola dagoz, kopurua jakin leiteke. Baina igual gehiago egongo ziran lehen oin baino.

Aldatu egin dana da herritik zabizenean, paseoan ibiltzen dala jentea txakurrakaz. Lehen hemengo txakurra ez zan kalean ikusten; baserrikoa zan eta baserrian egoten zan, baserriaren inguruan. Eta baseri bakoitzean txakur bi edo hiru eta beste katu bi edo hiru egotea normala zan.

Baina gizartea asko aldatu da eta atletik sartzean danean bezeroa, erradiografia atera behar deusazu, jakin ze txakur daukan, zelangoa dan bera eta zelan tratetan dauan txakurra. Mundu bi diralako.

Baserritan txakurrak egoten ziran, zeozelan, lan bat egiteko eta oin kalean, herrietako kaleetan, txakurren funzioa konpainia egitea da, ezta?

Horixe! Hemen txakur mota bi dagoz. Alde batetik, baserrikoa segiduten dauana lehengo moduan. Txakurrek eta katuek euren funzioa daukie. Eta badauz be konpainiarako dagozanak, txakurrak gehiago katuak baino.

Hor bai igartzen dala aldaketa handia, atzenengo hamar urteetan edo gertatu dana. Konpainiako txakurrak, jaubearentzat, seme-alaben modukoak dira. Gorakada handia egon da maskotei jagokienean.

Familikoatzen daukiez. Lehenengo aldia da Arratian txakurra etxe barrura sartzean dala. Baserrikoa ez zan sartzean etxe barrura.

Zergaitik? Hori gizarteagaz doa, Arratia ez dago aparte. Umeak be, txakurrak baino askoz gitxiago dagoz. Gizartea aldatu egin da eta hori Arratia be heldu da.

Albaitari klinikak be mota bitakoak dagoz: betikoak, gure modukoak, familiarak edo, albaitari batez edo bigaz; eta Bizkaian be badaukaguz albaitari klinika batzuk ospitalen modukoak diranak, personen ospitalen langoak. Gainera, inbersino funtsak be sartu dira arloan, eta klinika kateak dagoz.

Arratian ez dago holangorik, albaitari klinika bi dagoz, ezta? Bata Igorren eta bestea Lemoan.

Bai, ointsu zabaldu dabe Lemoan. Ha be txikia, familiarra. Baina maskota daukien familiak arduratzen dira asko eta beste zerbitzu batzuk behar dabez, albaitari espezializadunak. Hau da oftalmologoak, dermatologoak, traumatologoak... Eta ospitaletan erresonantzia magnetikoak, scannerrak, eta abar egiten dira. Ontxe zabaldu da albaitari klinika bat Asuan (Erandio) eta horreek daukaz 50 albaitari, 2.000 metro karratu, 12 konsulta, kirofanoak...

Eta zerbitzu horreek, bakarrik erabilten dabez maskoten jaubeek ala baita baserriarrek be.

Baseri baten bizi dan txakurra, igoal zoriotsuagoa da, baina egia da baserriko personak ez dagozala hain gainean. Batzuetan ez deuse inportantzia handia emoten gauza txikiei. Baina kalekoek bai, edozein gauza txikigaz arduratzen dira. Eta jentea ordainduteko prest dago. Zerbitzu horreek garestiak izaten dira, baina umerik ez dagoenez holango etxeetan, ba "gure umea bera da" dinoe.

Txakurren funzinora bueltauz, hemen Arratian, zertarako erabilten dira txakurrak gehien.

Hemen danerik daukagu. Gehienak konpainiarako, baina oindino baserriko asko daukaguz. Ez dakit noz arte manteniduko diran. Beste alde batetik, Arratian kazari asko dagoz, basurdetan zein txoriak harrapetan ibiltzen diranak, ehiza nagusi eta ehiza txiki deitzen diranetan, hain zuzen be. Eta horretarako txakur mota batzuk dagoz.

Gero ardi-txakurrak dagoz. Ardi-

txakurrak asko ikusten dira. Eta euren artean gorantza egin dau mastinak. Asko. Osoa dagoalako. Ardiak hor Gorbeia inguruan jagoteko batez be dago mastina eta etxeak jagoteko be bai.

Baina hemen, klinikan, mastina ikustea gatxa da, ze euren maneju oso gatxa da. Mastina mobidutea ez da erraza, tamainuagaitik eta oso buru gogorra dalako.

Arratoi-txakurra desagertzen doa Arratian.

Mendian artaldean jagoten dagozan mastin handi horreek arazo izan daitezke. Batzuetan kaminora be urtetzen dira...

Jente gehiagok be esan deusta hori. Gu ez gagoz ohituta horretara. Hemengo ardi-txakurra 20 edo 25 kiloko txakurra izaten zan. Eta gero eta jente gehiagok esaten deusta inoz bidera urten jakola mastinen bat. Hori arzoa da. Ganadudunek dinoe otsoak dagozala, baina hor oreka bat lortu behar da mastina daukien abeltzain eta mendira doan jentearen artean.

Etxeak jagoteko be mastinak dagoz eta arazoak sortuten dira, ze ez da bardina haginkada bat hartzea 20 kiloko txakur batena edo 70 kiloko batena. Eta askotan, jaubeek ezin dabe txakurra ekarri txertoa ipinten; ezin dabe maneju. Batzuetan geu joaten gara txertoa ipinten, baina beste batzuetan ezinezkoa izaten da.

Txakur txikiak gitxiago dagoz handiak baino, ezta?

Bai. Hemen Arratian txakur handiak gura dauz jenteak: 20-25 kilotik gorakoak. Ardi-txakurrak zein konpania txakurrak, handiak. Txakur txikia gitxi ikusten da Arratian. 7-10 kiloko, gero eta gitxiago ikusten da. Baserritan egoten zan behiakaz edo oiloakaz baina desagertzen doa. Kortak be desagertzen doazen neurrian... Horren funzioa baserrian desagertu egin da eta gaur egun, txakur txikiak topetea be gatxa da. Eta lehen baserri guztietan egoten ziran.

Txakurrak gero eta handiagoak dira eta tratamenduak gero eta garestiagoak. Txakur handi bat eukitea, txakur txikia eukitea baino askoz garestiagoa da. Tratamendu guztiak, txertoa izan ezik, baita prebenzioak be, pisuka doaz. Eta jatekoa be bai. Eta lekua, pisu baten txakur txiki batek espazio txikiagoa behar dau zoriotsu izateko; handiak, handia. Baina hemen txakur guztiak izan



behar dira handiak.

Txakurrak, katuak eta ze maskota gehiago daukaz jenteak Arratian?

Hemen txakurrak eta katuak. Oso gitxi dago besterik daukana. Baten batek, hudoa; besteren batek, kojua... baina gitxi. Tratamenduak desbardinak diranez, beste klinika batera bideratu behar dira.

Zeintzuk dira hona datozen txakurrek eukiten dabezan gaixotasunak?

Hemen daukagun giroagaitik, kaparrak dagoz asko. Eta horregaz jentea oso mentalizata dago. Bai horregaz eta bai barruko biziokaz be. Hemen ez daukagunez ez bero handia udan ez hotz handia neguan, habitat oso ona da parasitoentzat. Eta horregaz eralazionautako gaixotasunak be tratetan doguz.

Baina egia da jentea oso mentalizata dagoala eta prebenzioa dala batez be egiten doguna. Prebenzioa inoz baino inportanteagoa da jenteak txakurrakaz konpartidu egiten daualako pisua. Lo be txakurrakaz egiten dabe batzuek eta badauz gaixotasun batzuk, personetara pasau ahal diranak. Orduan lan hori oso-oso inportantea da gaur egun.

Atzen 10 urteotan be, egin dabe gora asko antzutzeko ebakuntzek. Arrei eta emeei. Pisu baten kastru bako ar bat eukiteak arazoak emon ahal ditu bere karterragaitik, eta auzokoakaz euki ahal dira arazoak. Emeak antzutu barik eukiteak be arazo handiak ekarri ahal ditu. Orduan konbentziarako maskotak, txakurrak eta katuak kapau egiten dira.

Prebenzio lana eta kastrozioa da gehien egiten doguna.

Eta tratetan doguzan gaixotasun

batzuk aitatutearren, erreazino alergerikoa, erleen ziztadak edo sugeen haginkadak eta arazo dermatologikoak aitatuko neukez.

Arratian badago nahiko zerbitzu maskoten beharrezan guztiak atendiduteko?

Faltan botaten dana da txakur uleapaindegi bat. Baita, txakur edo katuentzako hotel bat. Ze jentea oporretan joaten danean, batzuek bai eroaten dabe euren maskotea, baina beste batzuek, segun nora joaten diran, ezin izaten dabe. Jenteak gauza horreek gura dauz. Esango neuke ez gagozala guztiz preparauta.

Albaitari aldetik ondo gagoz. Nahikoa dago arazo nagusiak konpondu eta prebenziarako.

Animalienganako tratu txarren kontrako lege barriak ekarriko dau aldaketarik jentearen portaeran?

Txakurrak edo katuak maskota moduan daukienez pentsetan dabe baserrietan txarto tratetan dabezala animaliak. Baserrikoek barriz, esaten dabe "zuek pentsetan dozue zuok ondo zainduten dozuela txakurra pisu baten eukinda?" Hor eztabaida bat dago. Baserrikoak pentsetan dau txakur zoriotsua dala han dagoan txakurra, eta pisuan daukan txakurra, berak hobeto atendiduten dauala baserrikoak baino. Salaketak egon daitezke.

Legea tratu txarrik ez egoteko da. Puntuz puntu irakurri ezker, ehuneko ehunetan ez dala beteko uste dot.

Gizartea antiespezismorantza doa, ezta? Giza eskubideak eta animalienak parekatzen.

Bai, horrantza doa. Animaliak erlazinoak guztiz desbardinak izango dira etorkizunean.

TXIRRINDULARITZEA

Hilaren 6an izango da Igorreko kadeteen lasterketea

Erredakzioa

Berrogei urte baino gehiago dira Arratiako Ziklista Elkartek (AZE) sankristobaletan kadeteen lasterketea antolatuten dauala. Aurten, Bizkaiko Koparako puntuagarria izango da. Garagarilaren 6an, 16:30ean, Garben daukie hitzordua ziklista gazteek.

Lasterketeak 55 km-ko ibilbide zirkularra dauka: Garbetik urten eta Garben izango dau helmugea. Zeanurira joan-etorri bi egingo ditue txirrindulariek; baina bigarren bueltan Undurragako presatik pasau eta Barazarreko bidetik itzuliko dira. Tarteko helmuga Igorren izango da lehenengo itzulian, eta mendiko saria 35. km inguruan, Barazarreko errepidera sartzerakoan.

Arratiarrak

Lasterketan, 90 txirrindulari inguruk parte hartzea espero dabe AZEkoek, Hego Euskal Herriko herrialde guztietatik etorritako taldeetan. Aurten AZEK ez dau talderik aurkeztu baina badagoz parte hartuko daben arratiarrak beste talde batzuetan. Holan, F2 Informatika taldean, Igorreko Peio Legina, Ekhi Atutxa eta Izei Zuluaga dagoz, baita Lemoako Manex Etxebarria be. Dromedario-Flotamet taldean barriz, Zeanuriko Markel Gorostizagoiza dago.



LASTO JASOTZE

Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketea jokatu eben Dimako Jon Loiolak eta Lemoako Ruth Linazak

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza Tubik jokatu ez arren, Arratiako ordezkariak egon zan bagilearen 15ean Durangon jokatutako Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketan. Linazak hirugarren egin eban eta Loiolak, bosgarren.

Andrazkoek 30 kiloko fardoa bost metroko altuerara altxatu behar eben. Minutu bitan jasoaldi gehien egin ebana Garbiñe Lopez de Uralde izan zan; 30 jasoaldi hain zuzen be. Sara Asenjok bigarren egin eban 27 jasoaldigaz eta lemoztarrak, 22. Ha-ta guzti be, pozik agertu zan Linaza; ama izan ostean bere helburua 20 jasoaldi egitea zalako eta bere helburua gainditu ebalako.

Gizonezkoetan, 45 kiloko fardoa zazpi metrotara altxetea zan proba, minutu bitan. Estu-estu egon zan lehia lehenengo postuetan, baina txapela Eder Lopez de Abetxukok eskuratu eban atzenean. Jon Loiola bosgarren postuan geratu zan, 20 jasoaldi egin.

Sailkapenak Andrazkoak

Garbiñe Lopez de Uralde: 30 jasoaldi.
Sara Asenjo: 27 jasoaldi.

Ruth Linaza: 22 jasoaldi.

Gizonezkoak

Eder Lopez de Abetxuko: 22 jasoaldi.

Oier Gonzalez: 22 jasoaldi.
Eder Saez de Ocariz: 21 jasoaldi.
Beñat Amade: 21 jasoaldi.
Jon Loiola: 20 jasoaldi.
Mikel Gonzalez: 19 jasoaldi.



Ruth Linaza.

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

Kili-Kili
Antzoa eta Puzkultura
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 61

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behar duzun jakintza

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrik (erakutsa, landak, basok...)
- Eteak/izak (sua, baxenak, etak...)
- Gonjoleak
- Lokal komertzialak
- Pabilioiak...
- Bolonarioak

Behar duzun praktika

- Irakin berriak erakitzeko
- Enplemak
- ARKITEKTURA-proiektuak
- Borne diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Unibertsitate Agirre 25, Leioa - Igorre
Nagusia: 94 421 31 31 - 425 16 31 31
Gizakia: 94 421 31 31 - 425 16 31 31
Bilaketa: 425 202 111
arratia@arratia.com

Olaetxe
OPTIKA, ENTZUKA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentilen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Aratxio Herri lasterketa

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidazkoak

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zinloan

2 urteko 18a

LASTO BOTATZE

Euskadiko Lasto Botatze txapela jantzi dau oingoan be Tubik

Erredakzinoa

Euskadiko Lasto Botatze Txapelketea jokatu zan bagilaren 23an Aulestin eta Jose Martin Bustinza "Tubi" kirolari dimoztarrak lortu eban bere 18. txapela; hau da, kirol modalidade honetako Euskadiko txapel guztiak irabazi ditu Tubik.

Hiru kirolari aurkeztu ziran txapelketara eta Tubi nagusitu zan 6 metroko altueran ipinitako langea gaindituta. Bigarren, Beñat Obieta arrazuztarrak egin eban, 5 metro eta 40 cm-ko markeagaz. Hirugarren lehiakidea, Mikel Agirre ondarrarra izan zan.

Txapeldunak sentimentu gazi-gozaok adierazo eutsazan BEGITURI. "Ni ondo nago. 6 metrotan mantendutun naz eta gehiago entrenau ezker, hori gainditu neike" eta alde horretatik pozik egon arren, "gero eta jente gixi" dagoala Lasto Botaten eta kezkatuta be agertu zan dimoztarra.



Tubi txapelagaz.

PELOTEA

Plazandreak torneo jokatu dau Amaia Aldai pelotari dimoztarrak

Erredakzinoa

Dimako pelotariak, binakakoa jokatu dau eta Nora Mendizabal izango dau bikotekide. Plazandreak saioaren aurtengo edizinoa, garagarriaren 1etik abuztuaren 5era jokatu da Bilboko Esperanza kaleko frontoian astelehenetan.

Binakako modalidadean, Aldai-Mendizabal, Arrizabalaga-

Capellan, Zabaleta-Gaminde eta Garai-Galeano neurtuko dira. Banakako txapelketan, Ibarrola, Larrarte, Etxegarai eta Arrillaga lehiatuko dira Lau eta erdiko modalidadean. Partidu guztiak ETB1en eta eitb.eus-en emongo dira.

Binakako partiduak 22 tantura jokatu dira, eta Lau eta erdikoak, barriz, 18ra. Lau jardunaldiren ostean, finalak abuztuaren 5ean jokatu dira.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

AREATZA UDAN

Antzerkia eta kontzertuak egongo dira Areatzako Bainuetxe ondoko landan

Aurten be, Areatza Udan ekimenak, etxetik eroandako afariagaz, aire zabalean musikea eta antzerkiagaz disfrutatuko aukerea dakar. Garagarilaren 4 eta 18an, bainuetxe ondoko landan 20:00etan izango dira antzerkiak eta 22:00etan kontzertuak.

Erredakzioa

Hilaren 4an, kaleko antzerkia egiten duan Cia Barsanti konpainiak bere *LJ 75 / ST 75* antzezlan barria eskainiko dau. Bertan, inguratzen gaituen populismoen arrisquez egiten da berba. Ostein, 22:00etan, Irati Bilbao, soul eta jazz abeslari durangarraren kontzertua egongo da Emakumea eta Lurraldea zikloaren barruan. Bilbaok 2020an kaleratu eban bere lehenengo diskoa *Begin* izenekoa.

Hilaren 18an, Pikor Teatro konpainia arabarrak *Atsoak dantzatzan* lana antzetzuko dau. Ikuskizun honetako protagonistak, zaharretxe batetik iges egindako andra bi dira. Euren asmoa itsasoa ikustea da. Antzezlan hau Pikor taldekoren zaharrei egindako omenaldia da, "zahar zo-

rionsuei, ametsez betetakoei eta bizitza trago luzeetan edaten dabenei".

22:00etan, Maria Xosé Silvar, Sés, kantautore galegoa egongo da Emakumea eta Lurraldea

zikloko bigarren kontzertuan. Bere gitarreagaz, lagun bigaz batera, musika galiziarra, rock eta blues estiloetako eta latinoamerikako autoreen musikeagaz nahastuten ditu.



Sés abeslari galiziarra egongo da Areatzan.

AUZOLANDEGIA

Lemoatxako lubakietako lanak jarraituko dabe Auzolandegiko gazteek

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzako Auzolandegiak programako gazteek, Lemoako Memoria Historikoa berreskuratzeke, aurreko urteetako lanagaz jarraitu eta Gerra Zibileko Lemoatxako batailako lubakien museoalizazioagaz amaituko dabe.

Gazteak, garagarilaren 21etik abuztuaren 4ra arte egongo dira Lemoan. Guztira 25 bat lagun egongo dira, gazteak eta hezitzaileak barne.

Lehenengo egunean, hilak 21, domeka arrastian, auzolande-

gikoei harrerea egingo deutsee Lemoako alkateak eta zinegotziek; agurra egiteaz gainera, lekua aurkeztu eta azalpenak emoteko. Hurrengo egunetan, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologo gida-ritzapean, falta dan lubaki lerro baten zakuak ipiniko dabez. Goizez lan egin eta arrastiz, mundu zabaletik etorritako gazteek, gure inguru eta ohituren barri jakiteko aukerea izango dabe, herriko jaietan, txangoetan eta beste jardueretan parte hartuz.

Auzolandegiak programea

Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzean dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso barik, aldi batez alkarregaz bizi eta gizarte osoagaz zerikusia daukan proiektu baten parte hartzeako. Lemoako Udalak, 2012tik hartzean ditu Auzolandegiak programako gazteak, Lemoatxako batailako lubakiak eta Gerra Zibileko Memoria Historikoa berreskuratzeke lanetarako.



JANTZEA

Jantza modernoko ikuskizunak batuko dauz Lemoa Dantzan-ek Kotxepinen



Erredakzioa

Garagarilaren 5ean, 19:30ean, hiru jantza ikuskizun batuko dira Lemoa Dantzan izenpean Kotxepin Kultur Etxean. Natalia Garciaren *El espacio de los límites*, Jone Amezaga eta Manu Gaigneren *Remedios Vals* eta Ane Zapirainen *Agortu* izeneko lana dira jantza ikuskizunok.

Espazioak aztertzen ditu Nata-

LEHIAKETEA

Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 15era arte

Erredakzioa

Kartelak aurkezteko epea garagarilaren 15ean, ordu bietan amaituko da. Areatzako Jaiak 2024, Abuztuaren 23tik 31ra testua derrigor agertu behar da. Lanak Areatzako udaletxean aurkeztu behar dira sinatu barik. Kartelak 60/40 cm-ko tamainua eukiko dau, baina A3 paperean aurkeztu beharko da. Kartel bakoitzagaz batera eta gutunazal itxi batean egilearen datuak -izena eta abizen bi, helbidea eta hartu-emonetarako telefono zenbakia- aurkeztuko dira. Irabazleak, 150 euro eroango dauz.

Epaimahaiak garagarilaren 15ean berean jakinarazoko dau irabazlea zein dan. Jaietako kartel irabazlea argitaratzeko konpromisoa hartzean dau Udalak eta jaietako liburuxkan be agertuko da.

LEHIAKETEA

Zeberioko jaietako kartel lehiaketak

Erredakzioa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak kartel lehiaketak ipini dabez martxan; orokorra, eta umeentzako jarduerak iragartzekoak. Umeenei jagokinean, bata 9 urte artekoentzat izango da, eta bestea 10 eta 14 urte bitartekoentzat. Hilaren 24ra arte entregau daitezke kartel proposamenak udaletxean. Oinarriak Udaleko webgunean konsultau daitezke.

Kartel orokorrean, "Zeberio sandoniak 2024. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra" testua agertu behar da. Bardintasunerantz Bideratuz programearen barruan dago lehiaketa hau. Epaimahaiak, kartelaren edukia eta gaia, originaltasuna eta andra eta gizonen artean bazterkeria alboratu eta bardintasuna bultzatzen dabezan egoerak sustatzea balorauko dau. Irabazleak 70 euroko saria izango dau eta bigarrenak 50 eurokoa.

Umeentzako ekintzen kartelean, "Zeberioko sandoniak 2024. Umeen ekintzak" izango da derrigorrezko testua. Parte hartzaile guztiek oparitxo bana jasoko dabe.

eta inguratzen gaituan espazioagaz une horretan".

Remedios Vals Jone Amezaga eta Manu Gaigneren jantzea, ideen gaineko haurnarketea da. "Idea bat sortu, denporea, idea suntsitu. Etenbarik gertatzen jakun zerbait da eta guk vals battegaz erantzuten deusagun absurdoaren erreinuan alkar topau arte. Zentzubakokeriak jositako 3/4ko konpas zentzudunek zirrara eragiten deuskue, mobidu egiten gaitue. Itsasoaren tripak mobiduten diran moduan bare dagoanean" azalduten dabe sinopsian.

Amaitzeko, *Agortu* lanean, Ane Zapirainek, lan egiteko moduaz, atsedean hartzeako moduaz, sexualidadeaz, zainketaz edo ibilteko modu estandarizatuaz egiten dau berba bere jantza honegaz. "Eguneroko koreografietan estututa, gorputza bizirik irauten saiatzen da bere forma agortzen, eta arrakaletan paisaiak zabaltzen dira" dino sinopsiak.

JANTZEA

Bolivia eta Tanzaniako jantza taldeak egongo dira Areatzan, Folklore Bizian jaialdian

Garagarriaren 21ean, 20:00etan, Areatzako frontoian Boliviako Manuel Acosta jantza taldea eta Tanzaniako Lumumba taldearen jantzak ikusteko aukerea egongo da Galdakaoko Andra Mari taldeak Areatzako Folklore Bizian jaialdira ekarrita.

Erredakzioa

Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak antolatutako Udalagaz batera dau urtero Folklore Bizian jaialdia, eta bere jantzak erakustez gainera, mundu zabaleko jantza taldeak ekarten ditu euren ondarea eta ohiturak jakitera emoteko. Aurten, Bolivia eta Tanzaniatik etorritako taldeak egongo dira Areatzan.

Boliviako Manuel Acosta folklo-re taldea

Boliviako jantzek biolentzia eta gozotasuna adierazoten dabe: espainiarretatik heredatutako katalikotasunak ezarritako bizi baldintza gogorren biolentzia, alde

batetik eta bizirauteko maitasuna eta poesiaren gozotasuna bestetik, hain zuzen be. Eta iluntzean, *La diablada* jarraituko dau bere musikeagaz, antxinako herri honen lekukotasuna erakusten. Horixe egiten dau Manuel Acosta folklore taldeak bere jantzetan, "haizearen eta eguzkiaren seme-alaben" herriaren lekukotasuna erakutsi, hain zuzen be.

Tanzaniako Lumumba folklore taldea

Tanzaniako jantzak, entretenimenduaz gainera, emozinoak adierazoteko modua eta arbasoakaz komunikotako modua be badira. Taarab, berrogei instrumentuz lagunduta,

tanborrak, adarrak eta sokak barne, Zanzibarren abeslari batek eskainitako ikuskizun herrikoia da. Andrak, gaueko soineko argitsua-gaz, hurreratu egiten dira astiro-astiro artistearengana, jantzan eta dirua eskaintzen, euren bizitzen gaineko koplak kantau dagiazan. Musikeak, indiarren, arabiarren eta afrikarren eraginak ditu. Hau dana eskainiko dau Lumumba folklore taldeak.

Galdakaoko Andra Mari taldea

Folklore Bizian jaialdia antolatutako dauan Andra Mari taldea, 1955

urtean sortu eben Galdakaoko hainbat gaztek, euskal jantzen ondarea bildu eta gizarteratzeko. Hori dala-ta, sano errepertorio zabala daukie: Altsasuko inauteriak, Luzaidoko jantzak, Bizkaiko erromeria, Zuberoako eta Gipuzkoako jantzak eta Lizarrako Larrain jantzea, beste batzuen artean.

Ikerketa eta dokumentazioan oinarritutako jantzak eta emonaldiak eskaintzen ditue eta sei hamarkada honeetan atzerriko hainbat jaialditan hartu dabe parte; Belgika, Alemania, Erresuma Batuan edo Montrealen, barbarako.



LEHIAKETE

Zeanuriko Jaietako Kartel Txapelketarako lanak aurkeztu daitezke hilaren 10era arte

Erredakzioa

Jaietako Kartel Txapelketan Zeanurikoek parte hartu ahal dabe, kategoria bitan: 18 urtera artekoa eta nagusia. Proiektu guztietan "Zeanuriko Andra Mari jaiak 2024, abuztuaren 10etik 16ra" testua derrigor agertu behar da. Garagarriaren 10era arte bialdu daitezke lanak harrera@zeanuri.eus helbidera edo paperean udaltxera eroanda.

Aurkeztutako lanak, garagarriaren 15ean eta 16an ikusgai egongo dira Udaleko pleno aretoan 18:00etatik 20:00etara. Epe eta leku horretan, zeanuritarrek bozkatu ahal izango dabe gehien gustetan jakien kartela eta kategoria bakotxean boto gehien jaso dituan izango da irabazlea.

Sariak, umeentzako liburu eta jolasetarako kultura bonoa eta nagusientzako euskal produktuen otzara bat izango dira. Lan irabazlea jaietako kartelean eta jai-egitarauaren azalean agertuko da. Lan irabazlearen egile eskubideak Udalaren esku geratuko dira.

DUNBA

Mosaikoa

Areatzako eskolea

2022-2023 ikasturtean, 2. zikloko ikasleek Erromatarren proiektua landu eben. Proiektuaren barruan, arte hezkuntza ikaslarloan, mosaikoak egiten trebatu ziran eta benetako mosaiko bat egiteko aukerea sortu jakien.

Proiektua herriagaz partekatze-ko asmoz, beste eragile batzukaz ipini ziran hartu-emonetan (herriko gazteak, jubiladuak...) eta danak agertu ziran prest proiektuan parte hartzeako.

Mosaikoaren kokapena ebatzteko orduan, aukera desbardinak egon ziran. Lehen aukerea, herriko horma baten egitea izan zan arren, errazoi desbardinak zirala medio, eskolan ipintea adostu genduan.

Egitasmo hau aurrera erodateko, ikasleen, irakasleen, familien eta Udalaren inplikazioa ezinbes-



tekoa izan da. Denporan luzatu egin dan proiektua izan bada be (ikasturte bi), lortu dan emaitzak egin dan ahalegin guztia merezidu izan dau.

Lerro honek aprobetxau gura doguz eskerrak emoteko parte hartu daben guztiei eta batez be Udalari.

AGENDEA

**GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Hilaren 24ra arte.

Hilaren 5era arte, 2012 eta 2020 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak. Bigarren astea.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 15eko 14:00ak arte, jaietako Kartel Lehiaketarako kartelak aurkezteko epea udaletxean.

09:30etik 13:30era, hilaren 5era arte udaleku irekiak bigarren astea.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeiko Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igoz #MIRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

08:00etatik 14:00etara, hilaren 12ra arte, ardi ule bilketarako izen-emotea Gorbeialdeko 94 631 55 26 telefonoan.

ARTEA

Hilaren 9ra arte, Garbigune mobikorra udaletxearen ondoan.

10:00etatik 14:00etara, 2012 eta 2019 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak. Bigarren astea.

BEDIA

Hilaren 12ra arte, Udalak antolatutako Txiki-Txoko eta Udaleku Irekiak.

Ludoteka zerbitzua zarratuta egongo da urri lehenengoaren 5era arte.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

Liburutegiko udako ordutegia garagarilaren 24ra arte. Astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara. Gero urri lehenengoaren 5era arte zarratuta egongo da.

DIMA

Hilaren 14ra arte, Lamindaoko jaietako herri bazkarirako txartelak salgai Dimako Baltzola eta Areatzako Hagina tabernetan.

Hilaren 15era arte udaleku irekiak 2011tik 2019ra jaiotakoentzat.

IGORRE

Hilaren 5era arte udaleku irekiak. Bigarren astea.

Garagarril osoan, 09:30etik 13:30era zabalik liburutegia. Hilaren 5era arte ez da liburu mailegurik egingo. Abuztuaren zarratuta egongo da.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

11:00etatik 13:00etara, telefono mobikorra erabilteko formakuntzea. *Telefono adimendua erabiltzen hasi eta ikasi* (Smartphone) tailerra Kultur Etxean.

17:30etik 20:00etara, hilaren 26ra arte, Herrian jolasean Zaztaparrak taldearen eskutik.

Hilaren 9ra arte, Garbigune mobikorra futbol zelaiko aparkalekuaren ondoan.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, hilaren 5era arte udaleku irekiak. Bigarren astea.

11:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean. Abuztuaren zarratuta egongo da.

Hilaren 21era arte, jaietako rally umoristikorako izen-emotea www.lemoa.net webgunean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Hilaren 13ko Tallemoretako jaietako bazkarirako izen-emotea zabalik Jubiladuen tabernan hilaren 5era arte.

UBIDE

10:00etatik 13:00etara, 4 eta 12 urte bitartekoentzako udaleku irekiak.

ZEANURI

09:00etatik 14:00etara, 2012tik 2019ra bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak.

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 10era arte, jaietako Kartel Lehiaketarako kartelak aurkezteko epea udaletxean edo harrera@zeanuri.eus helbidean.

Hilaren 12ra arte, ardi ule bilketarako izen-emotea Udaleku 94 673 91 46 telefonoan.

Hilaren 16ra arte, garagarilaren 20ko Ipiñaburuko auzokoen bazkarirako izen-emotea 605 591 101 telefonoan.

ZEBERIO

Eskolan (09:30) 10:00etatik 14:00etara eta Ermitabarrin (09:30) 10:00etatik 14:00etara, hilaren 5era arte, 2018-2021 eta 2013-2017 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak.

Liburutegiko udako ordutegia 11:00etatik 13:00etara garagaril eta abuztuan.

Hilaren 10era arte, Garbigune mobikorra udaletxe aurrean.

Hilaren 24ra arte, jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke udaletxean.

19:00etan, Bardintasuna eta Gizarte Batzordearen batzarra Hogarrean.

**GARAGARRILAK 3
AREATZA**

San Tomas jaiak. 12:00etan, mezea; 20:00etan, parrilladea. Ospitalosten.

**Asterriabiora bisitea antolatu
dau Areatzako Parketxeak**

Bagilaren 7an, Gorbeia Parke Naturaleko Areatza Parketxeak Asterriabio proiektu agroekologikoa ezetuteko bisita gidatua antolatu dau, proiektuko Sonia Inguzaren eskutik. Horretarako, Areatzako Zubizarrara auzora hurreratuko dira partaideak. Parketxeak antolatuten dauzan jarduera guztietan legez, parte hartzeako izena emon behar da aurretik Parketxean bertan, gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

Hilean-hilean hainbat jarduera antolatuten ditu Gorbeia Parke Naturalak, jenteari, Gorbeia inguruko naturearen barri emoteko. Batez be, mendi ibilbideak izaten dira, ez bakarrik paisajeak erakusteko, baita mendiko fauna eta landaredia erakusteko be. Horrezaz gainera, inguruko giza jarduera batzuek be emoten dabez jakitera; baserri batzuetara bisitak barne. Oingoan, Areatzako Asterriabio proiektu agroekologikoa aukeratu dabe bisitariari erakusteko.

**GARAGARRILAK 4
AREATZA**

Antzerkia eta Emakumea eta Lurralde zikloa. 20:00etan, konpainia Barsantiren *LJ 75 / ST 75* antzezlan; 22:00etan, Irati Bilbaoren kontzertua, bainuetxe ondoko landan.

IGORRE

16:30ean, Kiñu Gaztetxea txukundu eta datorren ikasturteari begira lanak egin.

**GARAGARRILAK 5
LEMOA**

19:30ean, Lemoa Dantzan Kotxepin Kultur Etxean.

**GARAGARRILAK 6
IGORRE**

Jaiak San Kristobalen. 10:00etan, *Aramot ezagutu* (oinez); 11:30ean, txupinazoa; 12:00etan, Paella Lehiaketarako izen-emotea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:00etan paellen aurkezpena; 17:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea; 18:00etan, Nimu Cia konpainiaren *Jacuzzi* kale antzerkia; 20:00etan, kontzertuak: Astrapalea Rock gaua, Foterie taldea eta mikro irekia.

LEMOA

Hilaren 7ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Pirinioetara astegoi pasan.

**GARAGARRILAK 8
ARANTZAZU**

Hilaren 13ra arte, 2007 eta 2014 bitartean jaiotakoentzako udaleku itxiak Adunan.

AREATZA

09:30etik 13:30era, hilaren 12ra arte udaleku irekiak. Hirugarren astea.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, 2012 eta 2019 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak. Hirugarren astea.

DIMA

Hilaren 12ra arte, udaleku ibiltariak Dimatik (itxiak) 2006 eta 2019 bitartean jaiotakoentzat.

IGORRE

Hilaren 12ra arte udaleku irekiak. Hirugarren astea.

Hilaren 11ra arte, 14 eta 16 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak-en Gazte Udalekuak Riglosen.

11:00etatik 13:00etara, telefono mobikorra erabilteko formakuntzea. *WhatsApp erabiltzen ikasi* tailerra Kultur Etxean.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, hilaren 12ra arte udaleku irekiak. Hirugarren astea.

ZEBERIO

Eskolan (09:30) 10:00etatik 14:00etara eta Ermitabarrin (09:30) 10:00etatik 14:00etara, hilaren 12ra arte, 2018-2021 eta 2013-2017 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak.

**GARAGARRILAK 10
IGORRE**

13:00etan, mezea San Kristobalen. Ostein barauskarria eta herriko trikitilariak.

**GARAGARRILAK 11
IGORRE**

16:30ean, Kiñu Gaztetxea txukundu eta datorren ikasturteari begira lanak egin.

**GARAGARRILAK 13
BEDIA**

Hilaren 19ra arte, Bediako Uda Gaztea bidaia.

Hilaren 24ra arte, Udako ludotekea: Ludosport.

IGORRE

Jaiak San Kristobalen. 16:00etan, Goitiberen Txapelketea; 22:30ean, kontzertuak: A & H (Akesolo eta Houston) eta Akerbeltz erromeria.

LEMOA

Tallemoretako jaiak.

**GARAGARRILAK 15
ARTEA**

10:00etatik 14:00etara, 2012 eta 2019 bitartean jaiotakoentzako udaleku irekiak. Laugarren astea.

DIMA

Hilaren 19ra arte, udaleku itxiak Goizuetan 2008tik 2011ra jaiotakoentzat. Zaztaparrak.

IGORRE

Hilaren 19ra arte udaleku irekiak. Laugarren astea.

11:00etatik 13:00etara, telefono mobikorra erabilteko formakuntzea. *Webguneak, posta elektronikoa eta internet segurtasunez erabili* tailerra Kultur Etxean.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, hilaren 19ra arte udaleku irekiak. Laugarren astea.

**GARAGARRILAK 18
AREATZA**

Antzerkia eta Emakumea eta Lurralde zikloa. 20:00etan, Pikor Teatro konpainiaren *Atsoak dantzan* antzezlan; 22:00etan, SÉS abeslariaren kontzertua, bainuetxe ondoko landan.

IGORRE

16:30ean, Kiñu Gaztetxea txukundu eta datorren ikasturteari begira lanak egin.

**GARAGARRILAK 20
DIMA**

Lamindaoko jaiak. 11:00etan, igoerea Lamindaoko eleizatik Ilunbera. Bertan ikurriña aldatu; 12:00etan, Futbolin Txapelketea eta kalejirea; 15:00etan, herri bazkaria; 18:00etan, herri-kirolak; 20:00etan, txokolata; 22:30ean, DJ Xaibor.

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, jaien hasikerako txupina; 14:00etan, auzo bazkaria; bazkalostean, animazioa, bingoa... 19:00etan, Bola Txapelketea, Zeanuriko Kofradia Txapelketarako

puntuagarria; 20:00etan, txokolata.

**GARAGARRILAK 21
AREATZA**

20:00etan, Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak eta Areatzako Udalak antolatuta, Folklore Bizian jaialdia frontoian. Jantza taldeak: Boliviako Manuel Acosta folklore taldea, Tanzaniako Lumumba folklore taldea eta Andra Mari taldea.

ARTEA

Santa Marina jaiak. Mezea, barauskarria eta Paella Lehiaketea Santamañen.

**GARAGARRILAK 22
IGORRE**

Hilaren 26ra arte udaleku irekiak. Bosgarren astea.

11:00etatik 13:00etara, telefono mobikorra erabilteko formakuntzea. *Egunero oso erabilgarriak izan daitezkeen aplikazioak* tailerra Kultur Etxean.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, hilaren 26ra arte udaleku irekiak. Bosgarren astea.

UBIDE

Madalena jaiak. 12:00etan, umeen jokoak, ostein mezea eta kopaua; 14:30ean, tortillen aurkezpena; 15:00etan, bazkaria etxetik eroandakoagaz Bolalekun eta ostein bingoa; arrastian; Pikante eta Bigote Txapelketea; iluntzean, La Jodedera taldea; gauean, sardinak eta txokolata eta erromeria.

**GARAGARRILAK 24
BEDIA**

Liburutegi zerbitzua itxi, urri lehenengoaren 5era arte.

LEMOA

20:00etan, jaietako Mozorro Lehiaketan parte hartzeako izen-emotea Atxeta plazan.

**GARAGARRILAK 25
ARTEA**

Santiago jaiak. Mezea Santiago ermitan eta ostein barauskarria. Marmitako Lehiaketea ermita inguruan.

IGORRE

16:30ean, Kiñu Gaztetxea txukundu eta datorren ikasturteari begira lanak egin.

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan mezea, ostein barauskarria herriko txistulariek girotuta; 17:00etan, umeentzako jolasak eta Mus eta Briska Txapelketea. Izen-emotea eguerdian zarratuko da 605 591 101 telefonoan; 18:00etan, artiler tailer erakustaldia Monseren eskutik; 19:00etan, ardi-txakurren erakustaldia; 20:30ean, txarri giharrea eta trikitilariak.

**GARAGARRILAK 26
LEMOA**

Hilaren 31ra arte Lemoako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. Santa Ana eguna. 12:00etan, Arimen mezea eta ostein barauskarria.

**GARAGARRILAK 29
LEMOA**

18:00etatik 19:00etara, Playback Lehiaketan parte hartzeako izen-emotea, txosnagunean. Lehiaketea 22:00etan.

**GARAGARRILAK 30
LEMOA**

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, Correos-en ondoan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkerero prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA

ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, ambulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure

amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu: 650 842 292.

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztiakotako aleman eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Garena txakolinaren 3 botila.

Ruper Lekue (Igorre)



2 Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak emondako kamiseta bana.

Amaia Arana (Lemoa)
Joana Etxebarria (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zikutzekutze@hotmail.com

begitu
eus

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!



1.411 JARRAITZAILE



421 JARRAITZAILE



2.520 LAGUN



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oïndino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.